

## XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5055

*AGINDUA, 2012ko urriaren 31koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Ertzaintzaren uniforme orokor eta bereizgarriei buruzkoa.*

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriak Herrizaingoko sailburuari gaitasuna ematen dio Ertzaintzako funtzionarioei esleitutako jantziak, armak eta haien uniformeei dagozkien bestelako ekipamendu eta efektuak zehazteko, haien nortasuna egiaztatzekeo baliabideak eta kategoria bakoitzaren bereizgarriak nolakoak izango diren adierazteko eta horien erabilera arautzeko. Hori guztia alde batera utzi gabe, era berean aurreikusten da Miñoi, Foral eta Mikelete Zerbitzuei atxikitako funtzionarioen uniformeei dagozkien jantzi, ekipamendu eta efektuen deskribapena, diseinua eta ezaugarri teknikoak beti diputatu nagusi bakoitzak horretarako emandako aginduetara egokitu beharko direla.

Gaitasun horretaz baliatuz, Ertzaintzaren uniforme orokor eta bereizgarriei buruzko Herrizaingoko sailburuaren 2010 abenduaren 2ko Agindua eman zen; hain zuzen ere, Ertzaintzaren jantzi eta uniforme mota guztiak eta horien erabilera publiko egiteko. Hori garrantzitsua da uniformea Ertzaintzako funtzionarioen agintaritzaren agente-izaera egiaztatzekeo elementua delako; horregatik gomendagarria da haren zehaztapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako xedapen batean jasota geratzea, era horretan funtzionario horiek bakar-bakarrik erabiltzen dutela bermatzeko eta, gainera, denek haren berri izan eta herritarrek erraz ezagutu dezaten.

Agindu horren bidez onartutako uniformeek kontuan hartzen zituzten jantziak eta uniformeak erabiltzean jasotako esperientzia, jantziak egiteko material berriak eta laneko arriskuen prebentziotik sortutako beharrak; ondorioz, funtsean, ikus-irudi korporatiboa gordetzen zen, baina uniformeek jantzien eraginkortasuna, segurtasuna eta funtzionaltasuna hobetzeko ahaleginak egin ziren.

Ertzaintzaren egungo beharrak ikusita, eta hainbat jantzi eta uniforme erabili izanaren ondorioz jasotako esperientzia kontuan hartuz, beharrezkotzat jotzen da Ertzaintzaren uniforme orokor eta bereizgarriei buruzko agindu berria ematea, era horretan lan-arriskuen prebentziotik sortutako beharrei erantzuteko, funtsean ikus-irudi korporatiboa gordetzeko eta, halaber, uniformeek jantzien eraginkortasuna, segurtasuna eta funtzionaltasuna hobetzen ahalegintzeko.

Horrezaz gain, jantziekin batera, Ertzaintzaren bereizgarri orokorrak eta bereziak ere arautu dira. Hori hala izanik, azpimarratu behar dugu kategoriak eta eskalak bereizteko kolore, angelu, haritz-hosto eta eguzki-loreetan oinarritutako sistema berri bat ezarri dela, bularreko ikurrean zein uniformearen sorbaldakoetan.

Ondorioz, bakar-bakarrik Ertzaintzan aplikatzekoa den xedapena denez, Ertzaintzaren Kontseilua entzunda eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritz, hau

### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta eremua.

1.– Agindu honen helburua da Ertzaintzako uniforme orokorrak, haien ezaugarriak eta erabilera arautzea. Horrek ez du eragotziko Ertzaintzan berariazko uniformeak dituzten Unitateek, Zerbitzuek eta Sekzioek uniforme horiekin jarraitu ahal izatea.

Era berean, uniformearen agertzen diren bereizgarri orokorrak eta bereziak ere arautuko dira.

2.– Bereizgarri orokorreari buruz arau honek jasotzen dituen aurreikuspenak Ertzaintzako unitate, zerbitzu eta sekzioetako kide guztiei aplikatuko zaizkie; Miñoi, Foral eta Mikelete Zerbitzuak edo Sekzioak barne hartuta.

3.– Agindu honek ez ditu arautzen Miñoi, Foral eta Mikeleteen Zerbitzu edo Sekzioetako uniformearen jantzi, ekipamendu eta efektuen deskribapena, diseinua eta ezaugarri teknikoak, gai horiek diputatu nagusi bakoitzak xedatutakoaren arabera arautuko baitira.

2. artikulua.– Uniforme-motak eta kolore korporatiboak.

1.– Ertzaintzaren uniforme orokorren barruan gala-uniformea eta laneko uniformea daude. Biak ondorengo artikuluetan zerrendatu eta agindu honen eranskinetan deskribatzen diren jantziek osatzen dituzte.

2.– Ertzaintzaren uniformeek kolore korporatibo hauek errespetatu beharko dituzte:

a) Laneko uniformeak kolore gorria, urdin iluna, beltza eta zuria erabiliko ditu.

c) Gala-uniformeak kolore gorria, urdin argia, urdin iluna, beltza eta zuria erabiliko ditu.

3. artikulua.– Jantziak, osagarriak, efektuak eta ekipamenduak.

1.– Ertzaintzako funtzionarioen uniformeak agindu honetan zerrendatzen diren jantziek osatuta egongo dira. Horiez gain, polizia-unitate, -zerbitzu edo -sekzio jakin batzuentzat, dagozkien xedapenetan ezarrita dauden edo etorkizunean ezarriko diren jantziak ere izango dituzte:

a) Ertzaintzako funtzionarioen laneko uniformea osatzen duten jantziak jarraian zerrendatu eta l. eranskinean deskribatzen diren hauek dira:

– Suaren kontrako tubularra, funtzio anitzekoa.

– Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-luzea.

– Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-motza.

– Suaren kontrako jantzi polarra edo antzekoa.

– Suaren kontrako azpiko arropa, negukoa eta udakoa.

– Suaren kontrako galtzerdi beltzak.

– Suaren kontrako lan-jantzia.

– Suaren kontrako aurpegi-estalkia.

– Suaren kontrako galtza taktikoak.

– Jaka motza.

– Uretarako arropa.

– Txanoa.

– Uhaleria beltza osagai guztiekin.

– Bota beltzak.

- Ebakien kontrako eskularru beltzak.
- Neguko txanoa.
- Balen kontrako txalekoa.
- Zapata beltzak.

b) Ertzaintzako funtzionarioen gala-uniformea osatzen duten jantziak jarraian zerrendatu eta II. eranskinean deskribatzen diren hauek dira:

- Txapela ikurduna.
- Jaka gorria.
- Gerriko beltza.
- Marra gorri zabaleko galtza urdinak.
- Eskularru zuriak.
- Galtzerdi beltzak.
- Zapata beltzak.
- Uhaleria zuria.
- Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-motza.

2.– Agindu honetan xedatutakoa gorabehera, Ertzaintzako Unitate, Zerbitzu edo Sekzioei atxikitako funtzionarioen lan-uniformeen jantziek, baldin eta agindu honetan jasotzen ez diren berariazko jantziak badituzte, beraiei aplikatzekoak diren xedapen bereziak izango dituzte jarraibide.

3.– Agindu honetan jasotako jantziez gain, uniformeeri bestelako ezaugarri teknikoak, osagarriak, efektuak eta ekipamenduak erantsi ahal izango zaizkie hala egitea beharrezkoa bada polizia-lanean funtzionarioen segurtasuna bermatzeko. Horretarako, aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritako baldintzak beteko dira.

4. artikulua.– Bereizgarri orokorrak.

1.– Uniformea janzten duten Ertzaintzako funtzionarioek uniformean Ertzaintzaren ezkutu orokorra, ikurrina eta beren eskalari eta lanbide-kategoriari dagozkien bereizgarriak eramango dituzte.

2.– Ertzaintzaren ezkutu orokorra bularreko ikurrean agertuko da, zeinaren diseinua eta ezaugarriak agindu honen III. eranskinean adierazten baitira.

3.– Eskalako eta lanbide-kategoriako bereizgarriak bularreko ikurrean eta uniformearen sorbaldakoetan agertuko dira, betiere agindu honen III. eranskinean jasota dauden diseinuaren eta ezaugarrien arabera. Bularreko ikurrak, eskuineko hegalean, Identifikazio Pertsonaleko Zenbakia eramango du (aurrerantzean IPZ).

Ertzaintzako funtzionario bakoitzaren IPZ Segurtasun Sailburuordetzak horretarako duen aplikazioan geratuko da erregistratuta.

4.– Ikurrina: uniformearen ezkerreko mahukaren goiko aldean, kanpoan, Herrizaingoko sailburuaren 2009ko azaroaren 17ko Aginduan adierazitako diseinua eta ezaugarriak dituen bereizgarri bat agertuko da. Agindu horren bidez, Ertzaintzako laneko uniformearen mahukako bereizgarria Eusko Jaurlaritzako Nortasun Korporatiboaren Eskuliburuan ezarritakora egokitzen da.

5.– Kasu guztietan, aginduzkoa izango da uniformeetan ikurrak eta bereizgarriak jartzea, gaikuntzetako maila-ikurrak barne, eta agindu honetan ezarritakora egokituko dira, baita araudi osagarrian ezarritakora ere.

5. artikulua.– Bereizgarri bereziak.

1.– Miñoien, Foralen eta Mikeleteen Sekzioen kasuan, aurreko artikuluko bigarren paragrafoak aipatzen duen bularreko ikurrean Ertzaintzaren ezkutu orokorrak aldaketa hauek izango ditu:

Erdiko ezkutua Lurralde Historiko bakoitzari dagokion ezkutuak ordeztuko du, lurraldeko foru-araudiaren arabera. Ertzaintza hitzaren ordeztu, hurrenez hurren, «Miñones», «Mikeletes» eta «Forales» edo «Miñoiak», «Mikeleteak» eta «Foralak» hitza jarriko da. Euskarazko eta/edo gaztelaniazko grafia Lurralde Historiko bakoitzeko organo eskudunek zehaztuko dute.

2.– Segurtasun Sailburuordetzaren ebazpen bidez ezar daiteke –hala behar dutela iritiz gero– atal, unitate, zerbitzu edo sekzio jakin batzuetako kideek bereizgarri bereziak eraman behar dituztela lan-uniformearen bularaldean.

6. artikulua.– Uniformearen erabilera.

1.– Ertzaintzako funtzionarioek uniformea erabiltzeak ziurtatuko du haiek duten agintaritzaren agente izaera; betiere, beren polizia-jarduerak direla eta, herritarrek eskatzen dietenean, lanbide-txartela erakusteko nahiaezkotasuna alde batera utzi gabe.

2.– Ertzaintzako kideen uniformea kide horiek bakarrik erabil dezakete, eta debekatuta dago beste pertsona, talde edo kidego batzuek erabiltzea, baita huts egitea edo nahasketa eragin dezaketen uniformeak jantzea ere.

3.– Uniformearen erabilera Ertzaintzaren Burutzak eta Ertzaintzako atal eta unitateetako arduradunek zehaztuko dute, betiere burutzaren aginduei jarraituz, eta egin beharreko zerbitzuak zeintzuk diren, zein egoeratan burutuko diren, gauzatuko diren tokiko klimatologia eta erabili beharreko elementu, baliabide eta tresnak kontuan hartuz.

4.– Beharrezkoa den ekitaldi ofizial eta publikoetan jantziko da gala-uniformea, baita Ertzaintzaren Zuzendaritzak zehaztuko dituen garrantzi bereziko polizia-jardunetan ere.

7. artikulua.– Kondekorazioak eta sariak erabiltzea eta erakustea.

Segurtasuneko sailburuordeak ebazpenen eta jarraibideen bitartez arautuko ditu uniformeetan kondekorazioak eta sariak erabili eta erakusteko kasuak eta moduak.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehengoa.– Agindu honetan jasotzen diren jantziak 2010eko martxoaren 26ko bileran Segurtasun eta Osasuneko Batzordeak landutako uniforme-proposamenean ezarritakora egokituko dira.

Bigarrena.– Uniformearen jantzi eta osagarrietan, ekipamendu eta efektuetan egin ahal diren aldaketak jantzi eta materialetarako batzorde teknikoak aurretiaz aztertuko ditu. Batzorde horren eraketa Segurtasun eta Osasuneko Batzordeak bultzatuko du.

2012ko azaroaren 16a, ostirala

Hirugarrena.— Ertzaintzaren uniformearen xedapen arautzaileetan egun jasotzen diren uniformearen jantziak eta osagarriak agindu honetan aurreikusten ez direnean, indarrean jarraituko dute eta aldatzeko jantzi eta materialetarako batzorde teknikoari iritzia eskatuko zaio. Batzorde horren eraketa Segurtasun eta Osasuneko Batzordeak bultzatuko du.

XEDAPEN IRAGANKORRA.— Uniformeen jantzi berrien banaketa.

Agindu honetan jasotzen diren lan-uniformearen eta gala-uniformearen jantzi berrien banaketa modu progresiboan egingo da, aurrekontuko zuzkiduren arabera.

Ertzaintzako funtzionarioei lan-uniformearen jantzi berriak ematen ez zaizkien bitartean, kaleko lan-uniformea edo bulegoko lan-uniformea jantziko dute, kasuaren arabera, baita uniforme horiei dagozkien jantziak ere, 2010eko abenduaren 2ko Aginduan ezarritakoari jarraituz.

Bulegoan lan egiten duten funtzionarioei zerbitzuaren premiak direla-eta zerbitzua kalean egin beharra egokitzen bazaie eta, artean ere, agindu honetako 2. eta 3.1.a) artikuluetan ezarritako lan-uniformearen jantzi berriak eskuratu ez bazaizkie, egin behar duten lanari dagozkion uniforme-jantziak emango zaizkie, betiere operatiboan parte hartzen duten unitate, zerbitzu edo sekzioko kide guztien uniformeak errespetatuz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lehenengoa.— Indargabetuta geratzen da Ertzaintzaren uniforme orokor eta bereizgarri buruzko Herrizaingoko sailburuaren 2010eko abenduaren 2ko Agindua.

Bigarrena.— Indargabetuta geratzen da Ertzaintzako funtzionarioen lanbide-akreditaziorako elementuei eta lanbide-eskala eta -kategorien bereizgarri buruzko Herrizaingoko sailburuaren 2007ko maiatzaren 31ko Aginduaren V. eranskina.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Garapen-jarraibideak.

Segurtasuneko sailburuordeari baimena ematen zaio agindu hau garatu eta aplikatzeko behar diren ebazpen eta jarraibide guztiak emateko, bereziki orain arte erabiltzen ari diren jantzien eta bereizgarrien ordean agindu honetan aurreikusten direnak jartzeari dagokionez.

Era berean, Segurtasuneko sailburuordeari baimena ematen zaio Ertzaintzako Unitate, Zerbitzu eta Sekzioetako berariazko uniformeei buruzko xedapenak emateko, hala behar badute, agindu honetan ezarritako zehaztapenak betez.

Bigarrena.— Indarrean sartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 31.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioako sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.

## I. ERANSKINA

## LANEKO UNIFORMEA OSATZEN DUTENJANTZIEN DESKRIBAPENA

– Suaren kontrako tubularra, funtzio anitzekoa: haren kolorea itsas-urdirin iluna izango da. «Ertzaintza» hitza kolore zuriz brodatua eramango du, ageriko tokian.

– Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-motza: ukondoan gaintetik mahuka motzak dituen poloa, alkandora-lepoa duena, eta, aurreko aldean, erdian, botoi bidezko itxiera duena. Haren kolorea gau-urdirina izango da, eta kanezua zeharka jarritako xingola gorriak mugatuko du. Mahukaren tolesaren josturan errematatuta, zeharkako xingola gorria jarriko da. Bularrean, eskuinaldean, «Polizia» hitza izango du, Ertzaintzaren ikurra ezkerrean, eta «Ertzaintza» hitza bizkarrean.

– Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-luzea: mahuka motzeko poloaren ezaugarri bereberkin, baina mahukak luzeak izango dira.

– Jantzi polarra edo antzekoa: suaren kontrako jantzia izango da, aurrealdetik irekia, kremailera baten bidez itxiko dena. Kolore itsas-urdirin gauekoa izango du. Sorbaldakoaren hegia gorria izango da eta, haren gainean, haritz-hosto gorri brodatu bat egongo da. Jaka motzarekin batera erabiltzeko modukoa izango da. Bizkarrean, «Ertzaintza» hitza eramango du eta, bularrean, eskuinean, «Polizia» hitza, eta, ezkerrean, polizia-kidegoaren ikurra.

– Suaren kontrako azpiko arropa, negukoa eta udakoa: jantzi-joko bakoitzak bi jantzi termoegonkor izango ditu; burua, oinak eta eskuak salbu, gorputz osoa estaliko dutenak. Suaren kontrako azpiko arropak mahuka luzeko elastiko zisne-lepoduna eta galtza luzeak izango ditu, biak itsas-urdirin ilun kolorekoak.

Udako azpiko arropa negukoa baino arinagoa izango da. Udakoan, lehentasuna izango du transpirazioa bideratzeak; negukoan, ordea, beroa emateak.

– Suaren kontrako galtzerdi beltzak: garrekiko eta txinpartekiko esposizioaren kontrako ezaugarriak izango dituzten galtzerdi beltzak izango dira.

– Suaren kontrako lan-jantzia: kolore itsas-urdirin gauekoa izango du. Sorbaldakoaren hegia gorria izango da eta, haren gainean, haritz-hosto gorri brodatu bat egongo da. Sorbalda luzatua duten alkandora-mahukak eramango ditu. Bularrean, bi sakela izango ditu, eta beste bi galtza-hanken alboetan. Goiko eskuin-sakelan brodatuta «Polizia» hitza eramango du; beheko ezker-sakelan, ordea, «Ertzaintza» hitza. Bularrean, ezkerrean, Ertzaintzaren ikur berezia izango du. Bizkarrean, «Ertzaintza» hitza eramango du.

– Suaren kontrako aurpegi-estalkia.

– Galtza taktikoak: suaren kontrako galtzak. Gerri aldean, bi kanpo-sakela izango dituzte, frantses erakoak eta kremailera bidezko itxiera dutenak; galtza-zangoen alboetan, bi sakela, velcro bidezko ixte-hegal horizontala dutenak, eta, atzean, bi sakela, ezpain-irekierakoak, ezkutuan geratzen den velcro-aren bidez horizontal ixten direnak. Galtzak urdinak izango dira, eta, galtza-zangoen alboko sakelen itxiera-hegalen goi-ertzean, zeharkako xingola gorria eramango dute. Galtza-zangoaren ezker-sakelako ixte-hegalean, «Ertzaintza» hitza agertuko da.

– Neguko txanoa: haren kolorea itsas-urdirin iluna izango da. Erdialdean, behealdean tolestean ikusteko moduan, «Ertzaintza» hitza kolore zuriz brodatua eramango du, ageriko tokian.

– Jaka motza: erditik kremailera bidez irekitzen da. Suaren eragina atzeratzeko azpiko bat eramango du, baita negurako zein udarako azal desmuntagarri bat ere. Aurrealdean, bi sakela izango ditu. Gorria izango da, eta eskumuturrek zinta islatzaile ezkutagarri batzuk izango dituzte. Bizkarraldean, «Ertzaintza» hitza eramango du eta, bularraldean, eskuinean, «Polizia» hitza, eta, ezkerrean, polizia-kidegoaren ikurra.

– Uretarako jantzia: bi jantzi izango ditu: galtzak eta jaka, gainezarrita egongo direnak. Goikoa gorria izango da eta behekoa itsas-uridin iluna. Bi jantzietan erraz ikusteko moduko elementuak jarriko dira.

– Txanoa: txanoaren osagaiak kaskoa, uhala, bisera eta sarea dira. Kaskoaren aurrealdean, kidegoaren ikurra jarriko da. Goi-mailako eskalan, ikur hori hondo beltz gaineko urre kolorekoa izango da; oinarritzko, ikuskapen eta egiterapen eskaletan, hondo beltz gaineko zilar kolorekoa izango da, eta, fakultatiboen eta teknikarien eskaletan, hondo gris gaineko zilar kolorekoa izango da (III. eranskinean deskribatutakoak). Kolorea itsas-uridin iluna izango da. Uhalean, otxar koloreko xingola bat eramango du. Ikuskapen eta egiterapen aginte-eskaletako biserak zilar koloreko hegji bat izango du muturrean; hegji urre kolorekoa izango da goi-mailako eskalarako.

– Uhaleria beltza osagai guztiekin: gerriko zurruna, euspen-sistema eraginkorra duena. Arma eta polizia-lana egiteko ezinbestekoak diren gainerako tresnak eramateko beharrezko zorroak jartzeko balio izango du (kargagailua, eskuburdinak, polizia-makila, txilibitua,...).

– Zango-erdiko bota beltzak: bota beltzak izango dira. Boten zangoaldeak orkatila babestuko du. Zola diseinatuta egongo da agenteei zapaldu behar dituzten gainazaletan segurtasuna emateko. Transpiragarriak, iragazgaitzak eta suaren kontrakoak izango dira.

– Ebakien kontrako eskularru beltzak: ebakien eta suaren kontrakoak izango dira, baita urarekiko eta beste likido batzuekiko iragazgaitzak ere. Mahuka-muturraren itxierak ahalbidetuko du gaineko jantziei gainjartzea, era horretan eskumuturra agerian geratzea galarazteko. Beltzak eta bost hatzekoak izango dira.

– Balen kontrako txalekoa: pertsona bakar batek erabiltzeko barne-txalekoa. Arina, malgua eta eroso izango da, eta balen kontra babesteko Ertzaintzaren Zuzendaritza Operatiboak unean-unean zehaztuko dituen eskakizunekin bat datorrena.

– Zapata beltzak: bi motatakoak izango dira. Batzuk, «taktikoak» izenekoak, larru beltzekoak, lokarriak, boten antzeko ezaugarriak dituztenak, eta besteak «bulegokoak» izenekoak, larru beltzekoak, lokarriak eta propietate antiestatikoak dituen zola dutenak.

## II. ERANSKINA

### GALA-UNIFORMEA OSATZEN DUTEN JANTZIEN DESKRIBAPENA

– Txapela ikurduna: ohiko euskal itxura duen txapela, kolore gorrikoa. Erdialdean, Eusko Jaurlearitzaren ezkutua eramango du.

– Galako jaka gorria: jaka aurrealdetik itxiko da, botoi/botoi-zuloz. Bularraldean, bi sakela izango ditu. Ezkerreko sakelaren barrualdean, Ertzaintzaren plaka-ikurra lotzeko botoi bat eramango du josita. Barrualdean, ezkerrean, pospolo-sakela bat izango du. Gainera, gerruntzerako tira batzuk eramango ditu galako gerriko zuria pasatzeko. Jaka honek alderen aldeko zulo bat izango du. Zulo horretatik, krokagailu batez errematutako galtzarbe-uhal bat agertuko da, pistola-zorroari lotzeko egokitua. Erabiltzaile ezkertiarrek egon daitezkeenez, jakak bi zirrikitu simetriko eramango ditu (ezker eta eskuinaldea). Ikurdun sorbaldakoa soingainari pasabide-pieza batez itsatsiko zaio, eta horretatik sorbaldakoa duen zarrailu bat sartuko da. Lepo-zerrenda izango du, lepoa ixteko pieza batez botoituko dena. Mahuka itsatsia egongo da, galtzarbean zirrikitu bat duela errematatuta.

– Marra gorri zabaleko galtza urdinak: jantzeko galtzak dira, alderantzirik gabekoak. Alboko bi sakela ditu eta, eskuinaldean, erloju-sakela bat. Atzealdean, bi sakela eramango ditu, binperrean zorroa eta botoi-zuloa dituztenak (emakumezkoentzako diseinuak ez dauka atzeko sakelarik). Alboetan, errasoko galoiak eramango ditu, kolore gorri bizikoak. Gerrikoa jartzeko tirak izango ditu. Gainera, udarako galtza mota bat egongo da, eta negurako berogarriago den beste bat.

– Eskularru zuriak: bost hatzeko eskularruak dira, bits zurizkoa, gala-ekital-dietarako, gizonezko zein emakumezkoentzat.

– Galtzerdi beltzak: jantzeko galtzerdi beltzak izango dira, muturrean elastiko bat dutenak.

– Zapata beltzak: larru beltzezko zapata lokarridunak.

– Jantzeko gerriko beltza.

– Uhaleria zuria: kolore zuriko gerrikoa izango da. Ertzaintzaren ikurra duen letoizko belarria izango du.

– Alkandora mahuka-motza: alkandora kolore urdin argikoa da. Mao motako lepoa izango du, kolore zurikoa, botoiaz ixten dena. Alkandora aurretik lotzen da, botoi-zulo bidez. Bularraldean, bi sakela ditu. Ezkerreko sakelaren zorro barruan, Ertzaintzaren plaka-ikurra jartzeko botoi bat darama. Mahukaren eranste-tokitik sortzen diren sorbaldakoak ditu, erpin forman amaitzen direnak, eta botoi-zulo eta botoi batez lotzen direnak. Mahukak banda zuri batekin errematatuta doaz. Behealdeak hegal modukoak dira.



### III. ERANSKINA

#### BULARREKO IKURRAK ETA SORBALDAKOAK

##### A) ERTZAINZAREN EZKUTU OROKORRAREN BULARREKO IKURRAREN DESKRIBAPENA:

60 x 55 mm-ko neurriak ditu. Oinarria Ertzaintzaren ezkutu profesionalak osatzen du, eta haren koloreak errespetatzen ditu. Zilar kolorekoa den 2 mm-ko ertz batekin profilatuta dago, eta kolore beltzeko oinarriarekiko 5 mm-ko tartea du.

##### B) MAILARI DAGOKION BULARREKO IKURRAREN DESKRIBAPENA:

Haren elementu bereizgarriak, eskala eta kategoriaren arabera, kopuru eta kolore desberdinetan agertzen diren angeluak, haritz-hostoak eta eguzki-loreak dira.

Gutxi gorabehera 74 x 44 mm-ko lauki beltza da. Eskala, kategoria eta/edo unitatearen arabera, 2 mm-ko lodiera duen urre koloreko, zilar koloreko edo kolore gorriko orla edo ertz batek inguratua egongo da. Fakultatiboen eta Teknikarien Eskalaren kasuan, laukiaren kolorea grisa izango da.

Eskuineko hegalean, identifikazio pertsonaleko zenbakia (IPZ) eramango du, bertikal jarrita.

Ikurra jartzeko, albo batetik 65 x 20 mm inguruko mihi laukizuzen bat ateratzen da, muturrean ikurraren atzeko alboarekin lotzeko gailu bat duena; halako moldez, non ahalbidetzen baitu ikurra bularraldean Ertzaintzaren kanpoko goi-jantzi guztiek duten zerrendari lotzea.

##### C) SORBALDAKOAREN DESKRIBAPENA:

Sorbaldakoa beltza izango da, Fakultatibo eta Teknikarien Eskalaren kasuan izan ezik, grisa izango baita. Azalean, urre kolore, zilar kolore edo kolore gorrian brodatutako haritz-hosto bat izango du, baita eskala edo kategoria bakoitzaren bereizgarria ere.

Sorbaldako zurruna: 120 x 54 mm inguruko neurria du, ebaketa zuzeneko oinarria, eta beste muturra 90º-ko angeluan amaitzen da. Sorbaldako osoa kanpoko aldetik inguratzen duela, galoitxo bat dauka, 4 mm-ko zabalerakoa, ertzetik 3 mm-ra kokatua, eskala edo kategoriaren arabera urre edo zilar kolorekoa izango dena.

Jantzietan jartzeko, sorbaldakoaren iruntziak sistema egoki bat izango du Ertzaintzaren jantzietan eusteko.

Sorbaldako malgua: hala zehaztuko den jantzietan, sorbaldako malgua eramango da, forma tubularrekoa, gutxi gorabehera 100 x 55 mm-ko neurrikoa, bi muturretan ebaketa zuzeneko oinarria duena. Sorbaldako osoa kanpoko aldetik inguratzen duela, galoitxo bat dauka, 4 mm-ko zabalerakoa, ertzetik 3 mm-ra kokatua, eskala edo kategoriaren arabera urre edo zilar kolorekoa izango dena.

Jantzietan jartzeko, sorbaldakoek oihalezko zumitza izan beharko dute, sorbaldakoaren barnealdetik pasatuko dena eta, halaber, jantzian jartzeko bere muturrean finkapen-sistema egokia izango duena.

2012ko azaroaren 16a, ostirala

## D) ESKALA ETA KATEGORIEN ARABERAKO IDENTIFIKAZIOA:

Ondorengo koadroetan, kolore, angelu, eguzki-lore eta haritz-hostoetan oinarritutako sistemaren arabera, Ertzaintzako funtzionarioen eskaletarako bularreko ikurren ezaugarriak eta zehazpenak definitzen dira, baita beren barruko kategorietarako ere.

Ikurrak:

Kategoria	Hondo-kolorea		Ertzaren kolorea
<b>OINARRIZKO ESKALA</b>			
Agentea	Beltza	Haritz-hosto gorria	Gorria
Agente lehena	Beltza	Hondo urdineko/ertz zuriko angelu 1	Zilar kolorekoa
<b>IKUSKAPEN ESKALA</b>			
Ofizialondokoa	Beltza	Hondo zuriko/ertz urdineko angelu 1	Zilar kolorekoa
Ofiziala	Beltza	Hondo zuriko/ertz urdineko 2 angelu	Zilar kolorekoa
<b>EGITERAPEN ESKALA</b>			
Komisariondokoa	Beltza	Zilar koloreko eguzki-lore 1	Zilar kolorekoa
Komisarioa	Beltza	Zilar koloreko eguzki-lore 2	Zilar kolorekoa
<b>GOI-MAILAKO ESKALA</b>			
Intendentea	Beltza	Urre koloreko eguzki-lore 1	Urre kolorekoa
Superintendentea	Beltza	Urre koloreko 2 eguzki-lore	Urre kolorekoa
<b>FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN ESKALA</b>			
C2 taldea	Grisa	Haritz-hosto gorria	Gorria
C1 taldea	Grisa	Hondo urdineko/ertz zuriko angelu 1	Zilar kolorekoa
A2 taldea	Grisa	Hondo zuriko/ertz urdineko angelu 1	Zilar kolorekoa
A1 taldea	Grisa	Hondo zuriko/ertz urdineko 2 angelu	Zilar kolorekoa

Sorbaldakoak:

Kategoria	Hondo-kolorea		Ertzaren kolorea
<b>OINARRIZKO ESKALA</b>			
Agentea	Beltza	Haritz-hosto gorria	
Agente lehena	Beltza	Haritz-hosto gorria	Zilar kolorekoa
<b>IKUSKAPEN ESKALA</b>			
Ofizialondokoa	Beltza	Haritz-hosto gorria eta hondo zuriko/ertz urdineko angelu 1	Zilar kolorekoa
Ofiziala	Beltza	Haritz-hosto gorria eta hondo zuriko/ertz urdineko 2 angelu	Zilar kolorekoa
<b>EGITERAPEN ESKALA</b>			
Komisariondokoa	Beltza	Zilar koloreko haritz-hostoa eta zilar koloreko eguzki-lore 1	Zilar kolorekoa
Komisarioa	Beltza	Zilar koloreko haritz-hostoa eta zilar koloreko 2 eguzki-lore	Zilar kolorekoa
<b>GOI-MAILAKO ESKALA</b>			
Intendentea	Beltza	Urre koloreko haritz-hostoa eta urre koloreko eguzki-lore 1	Urre kolorekoa
Superintendentea	Beltza	Urre koloreko haritz-hostoa eta urre kolore 2 eguzki-lore	Urre kolorekoa
<b>FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN ESKALA</b>			
C2 taldea	Grisa	Haritz-hosto gorria	
C1 taldea	Grisa	Haritz-hosto gorria	Zilar kolorekoa
A2 taldea	Grisa	Haritz-hosto gorria eta hondo zuriko/ertz urdineko angelu 1	Zilar kolorekoa
A1 taldea	Grisa	Haritz-hosto gorria eta hondo zuriko/ertz urdineko 2 angelu	Zilar kolorekoa

## E) ERTZAINZAREN EZKUTU OROKORRAREN XEHETASUN GRAFIKOA.



Txanoetan:

Oinarrizko Eskala eta  
Ikuskapen eta Egiterapen  
Eskalak

Goi-mailako Eskala


Fakultatiboen eta  
Teknikarien Eskala

## F) SORBALDAKO IKURRAREN XEHETASUN GRAFIKOA


## OINARRIZKO ESKALA

## AGENTEA

## Sorbaldako zurruna



## Sorbaldako malgua



2012ko azaroaren 16a, ostirala

## AGENTE LEHENA

## Sorbaldako zurruna



## Sorbaldako malgua




2012ko azaroaren 16a, ostirala


## IKUSKAPEN ESKALA

## OFIZIALONDOKOA

## Sorbaldako zurruna




## Sorbaldako malgua




2012ko azaroaren 16a, ostirala

## OFIZIALA

## Sorbaldako zurruna



## Sorbaldako malgua




2012ko azaroaren 16a, ostirala


## EGITERAPEN ESKALA

## KOMISARIONDOKOA

Sorbaldako zurruna



## Sorbaldako malgua







2012ko azaroaren 16a, ostirala

## KOMISARIOA

## Sorbaldako zurruna



## Sorbaldako malgua



2012ko azaroaren 16a, ostirala


## GOI-MAILAKO ESKALA

## INTENDENTEA

## Sorbaldako zurruna



## Sorbaldako malgua




2012ko azaroaren 16a, ostirala

### SUPERINTENDENTEA Sorbaldako zurruna





### Sorbaldako malgua



## G) MAILA-IKURRAREN XEHETASUN GRAFIKOA


## OINARRIZKO ESKALA




2012ko azaroaren 16a, ostirala

## IKUSKAPEN ESKALA

## OFIZIALONDOKOA




## OFIZIALA




2012ko azaroaren 16a, ostirala

## EGITERAPEN ESKALA

## KOMISARIONDOKOA




## KOMISARIOA




2012ko azaroaren 16a, ostirala

## GOI-MAILAKO ESKALA

## INTENDENTEA



## SUPERINTENDENTEA





2012ko azaroaren 16a, ostirala

H) BULARREKO ETA SORBALDETAKO IKURREN IDENTIFIKAZIO GRAFIKOA ESKALEN  
ETA KATEGORIEN ARABERA

## AGINTE-SORBALDAKOAK ETA -GALOIAK

## OINARRIZKO ESKALA

## AGENTEA



## AGENTE LEHENA



## IKUSKAPEN ESKALA

## OFIZIALONDOKOA



## OFIZIALA







2012ko azaroaren 16a, ostirala

EGITERAPEN ESKALA

KOMISARIONDOKOA KOMISARIOA




GOI-MAILAKO ESKALA

INTENDENTEA SUPERINTENDENTEA



2012ko azaroaren 16a, ostirala

FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN ESKALA  
C2 TALDEA C1 TALDEA



FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN ESKALA  
A2 TALDEA A1 TALDEA

